

## **ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA**

**2016-12-28**

2016ko abenduaren 28an egin zen Udal Batzarraren Osoko Bilkurak emandakoaren laburpena duzue jarraian. Hiru erabaki eta mozio bat izan zituzten aztergai.

### **ERABAKIAK**

#### **1-2016-11-26ko Osoko Bilkurako aktak onartzea.**

EAJko Kerman Orbegozo zinegotziak urriaren 26ko batzarreko aktan, erregu eta galderen sailean, “Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” mozioan, berak esan ez zituen hitzak bere ahotan jarri zirela aipatu zuen eta aldatzeko eskatu zuen. Aldaketa hori onartzen da. .

#### **2-2017ko aurrekontuen onarpena.**

EH BILDUko zinegotzien aldeko sei boto eta EAJko zinegotzien aurkako hiru. Egitasmoa bere osotasunean onartzen da proposatu eta aurkeztutako eran. Aldi berean, ondokoak ere onartzen dira:

-Egitasmoan proposatzen den Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan, honako aldaketak onartu:

+Gizarte zerbitzuetako teknikaria (Gizarte laguntzailea): Lanaldia %60tik %70era igo.

+Gizarte zerbitzuetako Administrari laguntzailea: Lanaldia %60tik %70era igo.

-Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 14 eta 15 artikuluetan esaten diren tramiteekin jarraitu.

-Jendaurrean erakusketan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behinbetiko onetsizat joko da, beste tramiterik gabe.

Aurrekontu horien xehetasunak laster izango dira eskuragarri alegia.eus webgunean.

### **3-Gaztaroa Lantzen programa onartzeko erabaki proposamena.**

Udalak azken urteetan Foru Aldundiarekin elkarlanean garatu duen gazteei begirako programa abenduaren 31n amaitzen da eta Aldundiak ez du jarraitzeko erabakirik hartu.

Udalak zerbitzuarekin bere kabuz gutxienez jarraitzeko proposamena da.

EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

## **MOZIOAK**

### **1-EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioa. Gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea galdegiteko mozioa.**

Espainiako Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen duen mozioa.

EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

Bozketaren azalpenak: EAJko Kerman Orbegozo zinegotziak bere taldearen izenean hobeto egokitzen den testua onartzea proposatzen du.

EAJko hiru zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EH BILDUko sei zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen.

## **GALDERAK**

EAJko Kerman Orbegozo zinegotziak osasun etxeari buruzko plan funtzionala Osakidetza egin ote duen galdetzen du. Alkateak erantzuten du Eskualdeko Tolosaldeko arduradunarekin askotan jarri dela harremanetan gai honi buruz eta gaur egun erabiltzen duten etxearen kudeaketa gastu amankomunei buruzko hitzarmenari buruz aldetuz baina erantzunik ez duela jaso. Behin eta berriz deitzen diola, baina erantzunik ez duela jasotzen.